



XIV. Itsas Joko Atlantikoak

Getxo-Sopelana

2008ko uztailaren 19tik 25era

Euskal Kirol Federazioen Batasuna



- 1. 2008ko Itsas Joko Atlantikoak**
- 2. Euskadi Joko Atlantikoetan**
- 3. Jokoen inaugurazioa**
- 4. Prentsa**



1. 2008ko Itsas Joko Atlantikoak

Itsas Joko Atlantikoak 1995 inguruan Britainian eratu ziren, ospakizun berdinean Europa Atlantikoaren eskualde eta nazionalitate ezberdinetako kirol, turismo eta kulturaren sustapena elkartzeko helburuarekin. Eta horretarako modurik egokiena itsasoarekin lotura estua zuten espezialitate haietan lehiatzea izan zen: surf, bela, arrauna, piraguismoa eta urpeko jarduerak. Euskadik jadanik lehiaketa honetan paper garrantzitsua betetzen du urtez urte areagotuz doan eta erabateko kalitatea duen partaidetzarekin azkeneko bi urtetan zehar Xixon, Cornwall eta Britainian erakutsi den bezala (bertaratu ziren guztietatik euskal selekzioa zalantzarik gabe hoberena izan zen). **Euskadiren** garrantzia gero eta handiagoa da eta, halaber, 2008ko Jokoak Getxo eta Sopelanan antolatuko ditu. Gainera, XIV. Itsas Joko Atlantikotan luxuzko aitabitxia izango du euskal selekzioak: Unai Basurko. 2007an bakarka munduari bira eman zion nabigatzaileak uztailaren 17an Areetan egingo den inaugurazio desfilean ikurrina eraman eta euskal selekzioa gidatzeko ardura izango du. Ondoren, txapelketak izango dira uztailaren 21etik 25era, Getxoko Kirol Portuan, Abrako uretan eta Arrietara hondartzan.

Aurreko 13 edizioetan, Itsas Joko Atlantikoek hurrenkera honen arabera zeharkatu dute eskualde eta herrialde zelten multzoa: Britainia, Galesko Herrialdea, Galizia, Cornwall, Eskozia, Asturias, Portugalgo Iparraldea, Irlanda, Pays de Morlaix (Britainia), O Salnés (Pontevedra), Xixon, Cornwall eta Britainia iaz; orduan ere Euskadi beste edozein selekzio baino gehiago nabarmendu zen. 2008ko edizio berri honetan, Jokoak antolatzeko txanda Euskadiri dagokio. Getxo eta Sopelana prest daude festarako.

Mendebaldeko Europaren udetako ospakizun saihestezina bihurtu da urteroko kirol – bela, surf, piraguismo, arrauna eta urpeko jarduerak- eta kultura zelten topaketa bikain



hau. Aipatutako kirol espezialitatetako praktikante eta zaleentzako nahiz Europa Atlantikoaren kultura zaharrenak atsegin dituztenentzako derrigorrezko hitzordua da.

Urtero, inplikaturako hainbat eskualde eta herrialdetatik etorritako 600 eta 800 kirolari artean, elkarbizitza atsegina eta lehiakortasun adeitsua uztartzen dituen giroan elkartzen dira itsasertz zabalarekin kontatzen duen toki batean. Besteak beste, Galizia, Katalunia, Kanariar Irlak, Andorra, Portugal, Britainia, Belgika, Normandia eta Asturiasekin lehiatuko da Euskadi.

Itsas Joko Atlantikoak uretako diziplina ezberdinetako Nazioarteko Federazioek aintzat hartutako jokoak dira. Halaber, 2003tik aurrera, Jokoak Merkatu Zeltari esker aberastu egin dira, zeinetan 3 ala 4 egunetan zehar herrialde ezberdinek produktu autoktono ugari erakusten baitituzte.

Itsas Joko Atlantikoak herrialde ala eskualde kide bakoitzeko 4 ordezkariez osatutako Nazioarteko Batzorde (elkarte frantsesaren estatusa, 1901 legea) baten ardurapean antolatzen dira. Nazioarteko Batzorde honek eskuliburu operatibo bat eta arautegi orokor bat editatzen ditu zeinek Jokoen edizio ezberdinetako tokiak eta datak definitzeaz gainera hauek behar bezala martxan jartzeko lan egiten duen.

Itsas Joko Atlantikoak ospakizun bat da eta urtero eskualde zeltak goraipatzen ditu eta ikuspegi orokorrago batekin.. Eskualde eta herrialde hauetako elementu komunak ugariak dira. Itsas Joko Atlantikoen nahia gure eskualdeen alderdi nautiko berezi hau erakutsi eta sustatzea litzateke, aldi berean populazioen artean elkarraldatzerako aukera berriak eratuz.



2. Euskadi Getxo eta Sopelanako XIV. Itsas Joko

Atlantikoetan

Euskadik Europa Atlantikoarekin tradizioz lotura estua izan du bere historia nahiz kulturari dagokionez. Hori dela eta, Itsas Joko Atlantikoen hasieratik bertatik, hauetan bere alderdi guztiak kontuan izanik inplikatu da -kirola, kultura eta antolaketa-. Urtero bere aukeren arabera, baina beti eskualde atlantikoetako proiektu honetan konprometituta. Halaber, **Euskadi 2008an antolatzailea izatea lortu du (Getxo-Sopelana)**, geografia eta azpiegiturari dagokionez dituen aukerak direla eta. Kandidatura 2006ko uztailaren 26an aurkeztu zen eta erabakia, urrian, Britainian hartu. Portugal eta Irlanda beste bi kandidaturak izan ziren zeinekin Euskadik 2008ko Joko Atlantikoen antolaketa lehiatu baitzuen. Baina ez zen zalantzarik egon eta Batzordeak joko hauei dagokionez 2008ko protagonistak Getxo eta Sopelana izatea erabaki zuen.

Halaber, **Euskal Kirol Federazioen Batasuna** duela lau urte Joko hauetako Nazioarteko Batzordean erabateko eskubidea duen kide bezala sartu zen, jadanik bere fundatzaileek bezalako eskubideak dituen kide bezala parte hartzeko.

2008ko edizio honetan, Euskadi 100 pertsona inguruko ordezkariarekin egingo die harrera gainerako herrialdeei, bost kiroleko kirolari, teknikari eta zuzendariekin. Ordezkari euskaldunek surf, bela, urpean jarduteko, arraun eta piraguismoko espezialitatetan lehiatuko dute. Euskal selekzioek duela urtebete Britainian surf, arrauna eta piraguismoa bezalako diziplina batzuetan bere nagusitasuna erakutsi zuten. Euskadik hainbat domina lortu zituen eta podiumaren gorenera iritsi zen.



3. Jokoen inaugurazioa

Datorren uztailaren 19an, larunbata, Itsas Joko Atlantikoen inaugurazio desfilea izango da Areetan. Talde parte hartzaileak Bizkaiko Zubitik abiatuko dira 19:30an eta Kale Nagusian barrena desfilatu egingo dute.

Behin Geltokia Plazara helduta, agintarien (Getxoko alkatea, Sopelanako alkatea, Batzordeko presidentea, Arku Atlantikoko presidentea etab.) hitzaldi eta ikuskizunekin gozatu ahal izango dugu. Haalber, Eusko Jaurlaritzako eta Aldundiko ordezkaritza espero da.

Itsas Joko Atlantikoen ereserkiarekin emango zaio amaiera uztailaren 19ko inaugurazio ekitaldiari. Astelehenetik aurrera, beraz, lehiaketari ekingo zaio Abra eta Arrietara hondartzako uretan.

Garraioa

Metro Bilbao eta Bizkaibus

Horrez gain, lehenbiziko aldiz mota honetako egitasmo batean, garraio publikoa izango da garraio ofiziala eta parte hartzaile, kirolari zein antolatzaileak eramateko konpromisoa hartu dute Metro Bilbaok eta Bizkaibusek.



4. Prentsa

Unión de Federaciones Vascas-Euskal Kirol Federazioen Batasunak XIV. Britainiako Itsas Joko Atlantikoen berri emango duen Prentsa zerbitzua jarriko du Euskal Herriko komunikabideen eskura.

Prentsa departamentuak egunero euskal ordezkariak joko hauetan lortzen dituen emaitzak jakinaraziko ditu. Nahi duen oro Euskal Kirol Federazioen Batasunaren Prentsa zerbitzuarekin harremanetan jarri ahal izango da.

Harremanerako pertsonak:

Oiane Morán Navarro (688 627 014)

José Antonio Pérez Capetillo (686 966 399)